# Nola tindatzen zituzten oihalak erromatarrek?

zer nola nork ?




Erantzuna:

## Susana Chamorro

Historia errekreatzailea

Antzinako Erroman, tindagaiak landareekin edo parasitoekin egin zitezkeen. Momentu honetan Reseda Luteola deituriko landarearekin tindaketa bat egiten hari naiz. Uretan sartu berri dudanez oraindik ez dago guztiz tindua, aurrerago ilunagoa eta kolore indartsuago bat izango du.

Orduan, nola egiten da? Finkatzaile batekin prestatu behar da, finkatzailea zuntza irekitzeko erabiltzen den substantzia bat da, zuntzaren ezkatak irekitzen dituena hain zuzen. Kasu honetan alunbrea erabiliko dugu, alunbrea harri bat da uretan disolbatzen dena, eta zuntz lehorrarekiko -25 erabiltzen da. Hau da, 100g zuntz erabiltzen badugu, 20-25g alunbre gehituko zaio.

Antzinako Erroman, tindagaiak landareekin edo parasitoekin egin zitezkeen. Momentu honetan Reseda Luteola deituriko landarearekin tindaketa bat egiten hari naiz. Uretan sartu berri dudanez oraindik ez dago g uztiz tindua, aurrerago ilunagoa eta kolore indartsuago bat izango du.

# Nola tindatzen zituzten oihalak erromatarrek?

zer nola nork ?

Orduan guztia bainu batean ezartzen da eta uraren tenperatu 80º igotzean, eta behin alunbrea disolbatzean, zuntza gehitzen zaio. Zopa bat izango balitz bezala mugitzen dugu, eta behin enbolbentean zuntza ongi xurgatu duenean, zuntza kendu egiten zaio. Azkenik, soilik urarekin garbitzen da xaboirik gabe, eta jada prest egongo litzake tinda jasotzeko.

Momentu honetan bainuan ikusten duzuena Reseda Luteolarekin daukat, eta honekin zeta eta artilea tindatuko ditut. Orduan, ezartzen den tinduaren kopurua tindatu nahi dugunaren araberakoa eta landare edo parasito motaren araberakoa izango da. Kasu honetan tinduaren erabiltzen dut, dezente, zeren eta hori kolore indartsu bat lortu nahi dutelako. Hori kolore suabeago bat nahi ezkero, tinduaren erabili beharko genuke, lortu nahi dugunaren arabera.

Enbolbentearekin berdin, uraren tenperatura 80º igotzen dugu, 1h - 1h 30min bitartean uzten dugu uretan, eta horrela nahi dugun tindaketa lortu dezakegu. Prest dagoenean, aski da urarekin soilik garbitzea, eta tinda egonkorragoa bilakatu nahi ezkero ozpin pixka bat ezarriko diogu eta ondoren lehortzen utzi.



KUTXA FUNDAZIOA
irun OIASSO MUSEOA